



## Hizkuntzen erreka

1

### Helburuak

**Norberak hizkuntzekin izan duen harremana lantzea**

**Hizkuntzen inguruko bizipenak lantzea**

**Hizkuntzen baitako hausnarketa pertsonala garatzea**



**Ikaskideen artean dagoen hizkuntza aniztasuna ezagutzea**

2

### Azalpena

Ariketa honekin ikasle bakoitzak hizkuntzekin izan duen harremana irudikatuko du. Horretarako, orri zuri batean kolore ezberdinekin erreka bat irudikatuko dute. Errekak iturburua(k) izango ditu (ama hizkuntza/k), erreka-stoak, ibai bilakatu daitezke... norberaren irudimenaren baitan marraztuko dute. Horretarako, aurretik begiak itxi eta irudikatze eskatuko diegu. Ariketa, behar den sakontasunez egin ahal izateko, irakasleak aurretik, bere ibilbidea azalduko du, bere "erreka" aurkeztuz.

Ikasle bakoitzak bere bizitzan zehar hizkuntzekin izan duen harremana irudikatzea izango da helburua, bere biografia linguistikoa burutzea. Irudia egiterakoan hizkuntza bakoitzarekin izan dituen bizipenak ere irudikatze eskatuko diegu.



Ondoren, ikasle bakoitzak bere erreka aurkeztuko du taldekideen artean. Aurkezpenak egin ondoren ondorioak adostuko dira:

- Aurkezturiko “errekek” badute antzekotasunik eta desberdintasunik?
- Zein faktorek eragiten dute bakoitzak izan dituen hizkuntzekiko harremanean (familiak, migrazio mugimendua, inguruneak, komunikabideek,...)

Irakasleak, hizkuntza aniztasun handia dagoela eta gero eta hizkuntza gehiago jakitea garrantzitsua dela nabarmenduko du. Era berean, euskarak Euskal Herria bizi toki bakar duenez, bakoitzak bere hizkuntzei uko egin gabe, euskara guztion hizkuntza dela nabarmenduko du.

Behin ikaskide guztiak beren “erreka” aurkeztu ondoren, orman itsatsi eta erreka guztien artean “itsasoa” irudikatuko dute.

### 3

## Oharrak

**Ikasgelan hizkuntza aniztasun handia dagoenean egitea komeni da.**

Unitate didaktiko hau ikasgelako hizkuntza aniztasuna jorrazteko baliabidea da. [Lingolang.net](http://Lingolang.net) webgunearen osagarri da.

Idea: FORONI, Nicola, ELHUYAR AHOLKULARITZA (2011): “Eraldaketa-prozesuak. Zer, zertarako, nola...”. Ulibarri programa. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.

Euskaltzaleen Topaguneak egokitua.

